

EPE ERTAINEKO IRAGARPEN BEREZIA
2021(e)ko maiatzaren 15(e)tik 2021(e)ko maiatzaren 21(e)ra
(2021/05/15(e)an egina)

Datozen egunetan eguraldia nahasia izango da. Izan ere, Atlantikoko depresioak hurbilduko zaizkigu eta haiei loturiko fronteak. Hodeitza aldakorra izango da eta euria egingo du. Prezipitazioa sarriago eta ugariago egingo du Kantauri isurialdean.

Asteartetik aurrera Azoreetako antizikloia apur bat iparralderantz mugi liteke eta, beraz, zailagoa izango litzateke Atlantikoko depresioak eta horiei lotutako fronteak hurbiltzea. Horrela, asteartetik aurrera baliteke eguraldia lehorragoa izatea eta temperatura igotzea.

Haizea, oro har, mendebal-osagaikoa izango da. Batzuetan hego-mendebaldeko haizea nagusituko da, eta, horrela, temperaturak gora egingo du Kantauri isurialdean; beste batzuetan, berriz, ipar-mendebaldeko nagusituko da, eta, ondorioz, temperaturak behera egingo du. Asteartetik aurrera baliteke brisa nagusitzea: goizean hegoaldeko haize ahula ibiliko da eta egunaren bigarren partean iparraldekoa.

Datozen egunetan, orokorrean, temperatura maximoak 15-20 °C artekoak izango dira. Asteartean eta asteazkenean altuagoak izan daitezke. Temperatura minimoak, orokorrean, 5 eta 10 °C artekoak izango dira.

Olatuen altuera adierazgarria 1-2 m ingurukoa izango da ia iragarpen-denboraldi osoan. Astelehenean 2 m-tik gora igo daiteke.

LARUNBATA (2021/05/15):

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Euri txikia egingo du, batez ere eta sarriago goizean goiz eta arratsalde-gauean. Egunaren erdialdeko orduetan prezipitazioa han-hemenka eta noizbehinka egingo du. Barnealdean hego-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin mendi inguruetan. Gainerako lekuetan norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da, mendebal-osagaia nagusi izanik. Temperatura maximoak nahikoa igoko dira Kantauri isurialdean eta nahikoa edo nabarmen hegoaldean.

IGANDEA (2021/05/16):

Zerua oso hodeitsu egongo da. Euri txikia egingo du, zenbait lekutan ertaina, bereziki Kantauri isurialdean eta egunaren lehen partean. Hego-mendebaldeko haize ahula ibiliko da, tarteka bizia; goizean Kantauri isurialdean mendebal/ipar-mendebaldera egingo du eta arratsaldean gainerako tokietan. Temperatura minimoak gutxi jaitsiko dira, bereziki barnealdean; azken orduetan neurtuko dira. Temperatura maximoak nahikoa edo nabarmen jaitsiko dira.

ASTELEHENA (2021/05/17):

Zerua hodeitsu egongo da. Egunaren lehen partean euri txikia egingo du, batez ere Kantauri isurialdean eta ekialdean. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, bolada gogor batzuekin kostaldean eta arratsaldean barnealdeko mendi inguruetan. Temperatura gutxi jaitsiko da.

ASTEARTEA (2021/05/18):

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Zerua tarteka hodeitsu egongo da, bereziki goizaldean eta gauean. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da; arratsaldean ipar-osagaira egingo du. Temperatura minimoak nahikoa jaitsiko dira eta maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira.

ASTEAZKENA (2021/05/19):

Zerua tarteka hodeitsu egongo da. Hego-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da eta arratsaldean iparraldera egingo du. Temperatura minimoak gutxi edo nahikoa igoko. Temperatura maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira.

OSTEGUNA (2021/05/20):

Zerua tarteka hodeitsu egongo da. Egunaren bukaeran prezipitazio txikia egin dezake. Hego-osagaiko haize ahula ibiliko da, arratsaldean ipar-mendebaldera egingo du eta bizi ibiliko da. Temperatura minimoak nahikoa igoko dira eta maximoak nahikoa jaitsiko dira.

OSTIRALA (2021/05/21):

Zerua hodeitsu egongo da. Prezipitazio txikia egingo du, batez ere Kantauri isurialdean. Ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da. Temperatura gutxi edo nahikoa jaitsiko dira.